

Komunistok Maiatzaren Lehenaren aurrean

Gaur, urtero legez, jada zaharkiturik dagoen fartsa bat antzeztuko dute langile mugimenduaren tradizio iraultzailea aldarrikatzen duten hainbat korrontek. Krisi ekonomikoko hamarkada baten ondoren, ez dute esperotako krisi iraultzailea ekarri masen berezko mugimenduaren gaineko indar metaketaren alde jaurtitako aldarriek. Izan ere, langile klasearen berehalako borroka zilegiak iraultzaren genesi eta premisa gisa ulertzean datza errebisionismoaren axioma nagusienetarikoa bat. Aitzitik, Leninek eta gure klasearen esperientzia historikoak irakasten digutenez, ideologia proletarioa langile mugimenduaren kanpotik baino ezin daiteke eraman. Ezintasunean, praktika sindikalistarekin, errebisionistek ez dute burgesiaren subsidiario bihurtzeko dudarik, defendatzen dituzten diskurtso sozialtxobinistek eta jarrera frentepopulistek argi uzten duten bezala.

Egiaz, proletalgora Estatu espainoleko klase-borroka garapenean ageri ez den eragile nagusia da. Mendebaldeko bloke inperialistaren krisi politikoaren erdian kontraizan inter-inperialistak lehen planoan daudelarik, ospatu berria izan den A-28ko hauteskunde-fartsa *Errestaurazio Krisia 2.0-ren* gertakari izan da. Hain zuzen ere, burgesiaren fakzio ezberdinen arteko gatazkak dira Estatu espainoleko agenda politikoa zuzentzen dutenak, burgesia handiaren eta klase ertainen blokearen —behargin aristokrazia, proletarizazio arriskuan, azken horien artean egonik— arteko itun sozialaren hausturaren emaitza gisa. Hauxe da gaur egun bizi dugun garaia: marxismoak proletalgoaren abangoardia-teoria bezala zuen hegemonia galdu egin du. Hori, Mundu Iraultza Proletarioaren zeruertz politikoaren galeraren eta **Urriko Zikloaren** porrotaren eta amaieraren ondorio da. Izan ere, marxismoa, klase-borroka esperientziaren eta gizadiaren praktika sozial historikoaren sintesia izanik, ezin daiteke ulertu *ekintzarako gida* arrunt bezala, praktika eraldatzaitetik bereizita dagoen teoria bezala. Aitzitik, bere praxian gauzen egoera aktuala eraldatzen duen mundu-ikuskerara unibertsal eraldatzaile bezala ulertu behar da; bai burgesiak bai errebisionismoak proletalgora huts gisa izatera behartu gaituzten hori ezeztatzea izanik lehen urratsa, horrela *herri tribuno* bihurtuz.

Egun, hegemonia errebisionistaren hamarkaden ondoren, komunistoi proletalgoaren independentzia ideologiko eta politikoa konkistatzearen zeregina dagokigu ezinbestean; marxismoari marxismoa aplikatuz, gaur, prozesu iraultzailearen hastapen-fase esentzial gisa. Horretarako, lehendabiziko fasean, **komunismoaren birsorkuntza ideologikoaren** fasean alegia, **Urriko Zikloaren Balantzea** burutzea ezinbestekoa zaigu, abangoardiaren baitan **bi ildoetako borrokaren** bitartez gure klasearen esperientzia praktikoa sortzaileki laburbilduz. Erantzun hauen inguruan diskurtso iraultzaile berri bat sortzen joango da, lotura politiko-organizatiboak eraikitzearen bitartez abangoardiako gero eta sektore gehiagoren gain eragingo duen polo erakartzailea osatuko duen subjektibitate

erreferentziala progresiboki hedatuz. Behin fase hau burutua, **birsorkuntza politikoari** aurre egin ahal izango diogu; sozialismo zientifikoak langile-mugimenduarekin bat egiterakoan **Alderdi Komunista** sortuz, autoeregite eta autoeralditze prozesuan abangoardia eta masen arteko fusio dialektiko gisa. Zeregin hauek aurrera eramateko dira beharrezkoak komunistak eta ez emana-den mugimenduan, gure klasearen mugimendu espontaneoan; izan ere, Iraultzaren subjektua sortzen dijoan aldi berean Programa iraultzailea sortzean dago gakoa.

Behin proletalgoa mugimendu politiko iraultzaile bilakatuta, bere ekintza subjektiboak **praxi iraultzailearen** hedapena ahalbidetuko du, praxi hori teoria eta praktikaren arteko elkar-ereldaketaren batasun dialektiko gisa baino ezin daitekeelarik ulertu. Orduan, Alderdi Komunistak mundu zaharraren aurka gerra zibil iraultzailea garatuko du, **Herri Gerra** formapean **Botere Berria** eraiki eta proletalgoaren diktadura ezarriko duena, komunismoranzko bidean Mundu Iraultza Proletarioaren euskarri base bezala. Ez dago beste aukerarik kontsekuentek diren komunistentzat. Eskematismo espontaneo errebisionisten aurrean, **Birsorkuntzaren aldeko Mugimenduak** abangoardiako erreferente marxista-leninistaren eraikuntzaren aldeko apustua egiten du; kontzientzia iraultzailea prozesu iraultzailearen burura eramango duen **kunismoaren birsorkuntza politiko eta ideologikoaren** bandera goratuz, aldeztuz eta aplikatuz. Modu honetan bakarrik erein ditzake proletalgoak gizarte berriaren haziak, non iraganaren kateetatik askatutako gizadiak bere helmuga gidatu ahal izango duen.

Komunismoaren birsorkuntza ideologiko eta politikoaren alde!

Abangoardiako erreferente marxista-leninistaren eraikuntzaren alde!

Birsorkuntzaren aldeko Komitea



2019ko maiatzaren lehena